

Munduko ekonomia aldizkari ospetsuenak **'Top 1000 World Banks'** urteroko txosteneko gailurrean kokatu du **bigarren urtez jarraian**

## **The Banker aldizkariarentzat Kutxabank da Estatuko jarduera onena duen bankua**

- **Kaudimenean eta palankatzean lider kokatu du, hau da, aztertzen dituen 8 kategoriatatik 2tan**

**2021eko ekainaren 30ean.** 'The Banker' finantza gaietako aldizkari britainiarrak Estatuko bankuen artean **jarduera onena** duen bankua izendatu du berriro Kutxabank, **'Top 1000 World Banks'** sailkapenaren barruan. Kutxabank rankineko buru izan da **palankatzearen eta kaudimenaren rankinetan**, azterketak aintzat hartzen dituen 8 mailetatik 2tan, beraz. Horrez gain, bigarren erakundea izan da errentagarritasunean eta aktiboen kalitatean. Kutxabank Espainiako **bankuen susperraldiaren buru** da eta guztira, 10 puntuko sailkapenean **5,41eko** nota jaso du, sistema osoko **balorazio onena**.

The Bankerren azterketak **zortzi maila** garrantzitsutan sailkatzen du banku bakoitzaren jarduera, honako hauetan: hazkundea, errentagarritasuna, eraginkortasun operatiboa, aktiboen kalitatea, arriskuaren itzulera, likidotasuna, kaudimena eta palankatzea. Guztira 17 adierazle desberdin konbinatzen ditu, jarduera onena duten bankuen sailkapen osoa sortzeko.

'Top 1000 World Banks' The Banker aldizkariak eginikoen artean arrakasta handiena duen sailkapena da. **Munduko ekonomia aldizkari ospetsuena** da The Financial Times taldeko hilabetekaria, eta ikuspuntu global batetik jarraitzen du ekonomiaren egunerokoa, iritzi artikuluetan, profilekin eta munduko finantzen eragile nagusiei eginiko elkarrizketekin.

The Banker aldizkariaren balorazioa, erregulatzailleek, ikuskatzaileek eta erresoluziorako erakundeen berriki eginiko balorazioen ondotik dator, Banka Agintaritzaren urteroko gardentasun txostenak kaudimenean emaniko lidergoa, Kutxabank MREL eskakizun txikiena duen erakundea izatea edota SREP ebaluazioan Europa osoko kapital-eskakizun txikiena duen seigarren bankua izatea, kasu.